

**TOLOSAKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA**  
**2014ko abenduaren 11an.**

BATZORDEKIDEAK:

Lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bokalak:

Jokin Azkue (EAJ)

Angel Yañez (PP)

Larraitz Bernedo (Erretengibel, S.A.)

Jon Arregi (Arkitektoen Elkargoa)

Hasier De los Rios (Ingurumena, Garapen  
Ekon..)

Oskar Soto (Eskola Agenda 21)

Aholkulariak:

Angel Uranga (Hirigintza, Obrak eta  
Zerbitzuak Departamentuko burua)

Tatiana Ramirez (Udal Arkitektoa)

Mikel Iriondo (Plan Orokorraren  
berrikuspenaren arduraduna)

Idazkaria:

Garikoitz Lekuona

Tolosako Udaletxean, 2014eko  
abenduaren 11ean, goizeko 8:15etan,  
Tolosako Udal Plangintzako Aholku  
Batzordea bildu da, Ibai Iriarte jaunaren  
lehendakaritzapean, alboan aipatu diren  
batzordekideen partaidetzarekin,  
eguneko gaiak jorratzeko asmoz.

Ez dira bertaratu:

- Iker Karrera (Tolomendi)
- Enrique Torquemada (Aralar)
- Jose Ignacio Asensio (PSE-EE)
- Aitor Iztueta (Bildu)
- Lore Agirre (Hirigintza Herri  
Azpiegiturak)

**AZKEN SAIOKO AKTA ONARTZEA**

**APROBACIÓN DEL ACTA DE LA  
ÚLTIMA SESIÓN**

Aho batez onartzen da.

Queda aprobado por unanimidad.

**PLAN OROKORRAREN ERREBISIO  
PARTZIALARI DAGOKION  
AURRERAPEN DOKUMENTUA: SAN  
ESTEBAN EREMUARI BURUZKO  
EZTABAIDA**

**DOCUMENTO DE AVANCE DE LA  
REVISIÓN PARCIAL DEL PLAN  
GENERAL: DEBATE SOBRE EL  
ÁMBITO SAN ESTEBAN**

Mikel Iriondok hitza hartu eta Plan  
Orokorrak Tolosa osorako ahalbidetzen  
duen etxebizitza eraikigarritasunarekin  
alderatuz (2.104 etxebizitza berri)  
Lurralde Antolamenduko Artezpideek  
(LAA) ezartzen duten gehienezko  
(1.139 etxebizitza) eta gutxienezko  
(570 etxebizitza) eraikigarritasunak  
aipatu ditu. Gogoratu du errebisioaren

irizpideak zeintzuk diren San Estebani dagokionez, azpimarratuz San Estebanek erantzuna eman beharra diela bai auzo beharrei eta bai herri beharrei ere.

Ibai Iriartek gogo arazi du Plan Orokor baten ohizko bizia 10 urte ingurukoa beharko lukela izan eta egungoak erdia betea duela. Konttestu ekonomikoa eta soziala, bereziki, aldatu dela eta plan orokorra doitu beharra dagoela esan du. Azpimarratu du Tolosan badirela oraindik ere garatu gabako eremu asko. Hori guztia aintzat hartuz, argitu du San Estebanentzako marko politiko bat definitua dutela udal gobernutik eta logikoki bideragarritasun ekonomikoak ezango duela non kokatzen den marko horren egiazko neurria.

Jokin Azkuek aurretik premisa batzuk adostea edo zehaztea beharrezkoa dela kontsideratzen du. Batez ere San Esteban Tolosako azken gune garrantzitsua dela jakinik. Bideragarritasun ekonomikoa oinarri hartuz, babes maila handieneko etxebizitza kopuru handiena egitearen aldeko azaltzen da. Jakinik horren egungo Plan Orokorrak ezarritako maximoa nabarmen gutxitzea suposatuko lukeela. Udala lurren % 60aren jabe izanik, Udala sustatzaile nagusi izan behar duela ulertzen du. Lehentasuna alogerako etxebizitzei emanez.

Jon Arregik berriz, Irizpidea baino, ikuspegi praktiko batetik arkitekturazko proposamen zehatzak egin nahiko lituzkeela adierazi du. Hau da helburuak eta irizpideak teknikoki nola

gauzatu. Planeamendu estrukturalaren mailan gaudela dio eta ondorioz etxebizitza kopuru maximoa zehaztu beharra dagoela dio.

Mikel Iriondok LLAk aldaketa estrukturala eragiten duela eta San Estebanek goian aipatutako helburu bikoitzari erantzun beharra diola aipatu du. Plan Orokorren marko orokorra kuestionatu gabe, berrikuspen partzialaren bidetik aldaketa zehatzak egin behar direla dio. Etxebizitza babes mailari dagokionez, San Estebanen legezko minimoa betetzen dela dio eta bideragarritasun ekonomikoak markatzen duela babes maila minimoa, hortik gorako kopuruaren zehaztea gai politikoa delarik.

Aurrerapen fase honetan 8 alternatiba mahai gainean daudela dio. Aukera guzti hauek etorkizuneko San Esteban nolakoa behar duen izan erabakitzeko baliagarri izan behar zaizkigu. Kontuan hartuz plantetazen den garapena faseka egin daitekeela, hasierako kopuru minimo batekin eta etorkizuneko garapen aukerak zabalik utziz.

Jokin Azkuek dio Peugeot kentzearen aldekoak direla, Zuberoa mantentzearen aldekoa, San Juan aldeko etxeen kasuan azterketa teknikoei erreparatu beharko zaiela, Bonbero mantenduz baldintza egokiekin eta Unipapel epe luzean desagertaraziz. Feriala mantentzearen alde, ematen zaion funtzioaren arabera eta ahalik eta alokairuzko etxebizitza kopuru gehien eraikitzearen alde.

Angel Yañez considera que no es el momento de San Esteban. Considera que sería una imprudencia modificar ahora el plan general. Cree que el plan, en sus condiciones actuales, puede tener larga vida y que garantiza un número importante de vivientas ante las nuevas Directrices de Ordenación

Ibai Iriartek dio hori entzunda oinarrian ados daudela. Faseen ideia atsegin duela.

Angel Yañezek dio ez dela San Estebanen unea, zuhurtzigabekeria litzatekela orain aldaketa sustatzea. Egungo planak bere horretan bizitza luzea izan dezakeela uste du eta LAAkren aurrean etxebizitza kopuru handia bermatzen duela. Kezka adierazten du San Estebanek herriarekin izan dezakeen lotura fisikoaz. Zuhurtzia eskatzen du eta plan orokorra ukitu gabe aukerak badirela dio.

del Territorio. Manifiesta su preocupación sobre la unión física entre San Esteban y el centro. Pide prudencia y cree que el plan, sin modificarlo, ofrece posibilidades.

**GALDERA-ERREGUAK**

Ez dago.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

No hay.

Besterik gabe, goizeko 9:50ak direnean saioa amaitutzat eman du aholku batzordeak.

BATZORDE LEHENDAKARIA

IDAZKARIA

Ibai Iriarte San Vicente

Garikoitz Lekuona